

## **IKERTZAILE SENIOR-ENTZAKO "SALVADOR DE MADARIAGA" LAGUNTZAK, ATZERRIAN EGONALDIAK EGITEKO – 2018 (HKKM)**

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak deia egin du 400 laguntza emateko, xedea izanik irakasle eta ikertzaileek egonaldiak egitea goi mailako hezkuntzako eta ikerketako atzerriko zentroetan.

### **Modalitatearen ezaugarriak**

Laguntza mota honek helburu du eguneratze etengabea sustatzea egonaldien bidez.

### **Laguntzen ezaugarriak eta iraupena:**

Egonaldirako, irakasle edo ikertzaileak aldatu egin beharko du jardun akademikoko atxikipen zentroa, bai eta ohiko bizilekua ere. Salbuespena izango dira % 65eko edo gorako desgaitasun maila duten hautagaiak. Izan ere, horrelakoetan ez da nahitaezkoa izango atzerrira joatea eta zentroa Espainiakoa izan daiteke; hala ere, aldatu egin beharko dute ohiko bizilekua.

Egonaldiaren iraupena 3 hilabetetik 6 hilabetera bitartekoa izango da: egonaldia jarraian egin behar da atzerriko zentroan jardun akademikoa eta zientifikoa dagoen aldiaren barruan.

Egonaldiak 2019ko uztailaren 1etik 2019ko irailaren 30era bitartean egin behar dira edo aldi horretan egindakoak izan behar dira.

### **Helburuko zentroak:**

Egonaldia helburuko zentro bakarrean egiteko eskatuko da.

Atzerriko zentroak izango dira (aparteko kasuetan Espainiakoa izan daitezke), eta onuradunek bertan egingo dute proiektua egonaldiak dirauen bitartean. Egonaldietarako zentroak izan daitezke unibertsitateak eta ikerketako eginkizunak esleituta dituzten zentroak, baina, betiere, proiektuaren eremuan izen handia izan behar dute irakaskuntzan eta ikerketan.

### **Onuradunak:**

Honakoak dira baldintzak:

- a. **Doktore titulua:** Doktore titulua eskuratuta izatea 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen. Karrerako funtzioen kasuan, berdin dio noiz lortutakoa den doktore titulua, beti egin behar dute eskaria A motako laguntzarako (senior ikertzaileak).
- b. **UPV/EHUrekin funtzionario lotura izatea edo lan kontratua:** Karrerako funtzionarioa izatea edo behin betiko lan kontratua izatea, betiere, horretarako nahitaezkoa izan bada doktore titulua izatea. Horrez gain, jardunean egon behar da arduraldi osoan.

- c. **Egonaldiak atzerrian:** Azken 4 urteotan atzerrian egonadirik, guztira 6 hilabetetik gorakorik, egin ez izana. Kontuan hartuko dira doktoregoa egin ondoren atzerrian egin diren hilabetetik gorako egonaldi guztiak, nahiz eta eskatzaileak egonaldirako laguntzarik, kontraturik edo antzekorik jaso ez izan.
- d. **Helburuko herrialdea:** Herrialdea ezin izango da izan onuradunaren herritartasunarekin bat etorri; salbuespena dira: egoitza legala Espainian izatea eta gutxien dela 2 urtez izatea lotura iraunkorra UPV/EHUrekin.

**OHAR GARRANTZITSUA:** UPV/EHUK **ez du balioztatuko** baldintza guztiak betetzen ez dituen eskaria.

***Eskariak aurkezteko epea:***

**2018ko urtarrilaren 10etik 30era bitartean, 14:00ak arte.**

***Eskariak egiteko prozedura:***

Eskaria lotura honen bidez egin behar dira:  
<https://sede.educacion.gob.es/tramite/login/inicio.jjsp?idConvocatoria=977>

Aplikazioan dauden eremu guztiak bete behar dira eskaria baieztatu aurretik. **Eskari orria ezin izango da zuzendu.**

Horrez gain, honako agiriak aurkeztu behar dira:

- Atzerriko zentroaren gutuna, adierazten duena eskari egilearen egonaldia onartu eta ontzat ematen duela.
- Doktore tituluaeren fotokopia, edo, halakorik ezean, titulua eskuratzeko eskariaren ziurtagiria.
- [Egin beharreko proiektuaren memoria](#)
- UPV/EHUrekiko kontratuaren kopia, eskatzaileek aldi baterako edo behin-behineko lan kontratua dutenean.

**OHAR GARRANTZITSUA: UPV/EHUn bete beharreko prozedura:**

UPV/EHUKo langileek, eskaria aurkeztean, [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus) helbidera bidali behar dute dokumentazio guztia (eskari orria, atzerriko zentroaren gutuna, doktore titulua eta memoria); horrez gain, **agiri bat erantsi beharko dute egiaztatzeko hasi dituztela izapideak unibertsitatean lanpostutik aldentzeko baimenak eskuratzeko.**

***HKKMn argibideetarako:***

[programa.movilidad@mecd.es](mailto:programa.movilidad@mecd.es)

***UPV/EHUrekiko harremana:***

E-maila: [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus)

Tel.: 94 601 80 08

***Informazio gehiago:***

<https://www.mecd.gob.es/mecd/servicios-al-ciudadano-mecd/catalogo/general/educacion/998537/ficha.html>